

Pertsona kooperatiboaren profilaren neurketa hezkuntza eta jendarte eraldaketa testuinguruan

Oxel Azkarate-Iturbe

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Aitor Aritzeta

UPV/EHUko Oinarrizko Prozesu Psikologikoen Saileko irakaslea

Jose Ramon Vitoria

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea

Joxe Azurmendik gizaberearen, pentsamendu sozialaren eta kooperatibagintzaren nahiz beste arloetan landutako ekoizpenek euskarri mardulak pausatu dituzte pertsonen garapen kooperatibo-komunitariorako, hezkuntzaren funtzioaren ulermenerako edota eraldaketa sozialerako.¹ *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta* (Lan Kide Aurrezkia, 1984) lanean, adibidez, argi azaltzen du Arizmendiarietaren pentsamenduan, beste eredu pedagogiko desberdinetan bezala, hezkuntza funtsezkoa dela jendarte humanoago, duinago eta demokratikoago baterako eraldaketa soziala ahalbidetzeko. Hezkuntzak aukerak ematen ditu pertsonen kontzientziak eraldatzeko, gizakiaren nortasunean eragiteko; beraz, pertsona kooperatiboak garatzeko, hezkuntza kooperatiboa (pedagogia kooperatiboa) baliagarria izan daiteke testuinguruko errealitatea eraldatzen laguntzeko. Gizakia komunitatearekin batera garatzen denez zatiezina baitira pertsonen eraldaketa eta eraldaketa soziala.

Azken urte hauetan, ostera, Azurmendik *Gizabere kooperatiboaz* (Jakin, 2016) liburuaren aurkezpenean plazaratutako galdera da, kooperatibismoa birpentsatzetik harago, nola berrirakurri daitekeen Arizmendiarieta XXI. mendeko testuinguruan. Halaber, idatzian bertan beste iradokizun bat egiten du Azurmendik: kooperazioak ez duela zergatik instintu egoista hutsa izan behar edo hezkuntzaren emari altruista, bietatik ukan dezakeela puska bat. Hortaz, posible izan daiteke eskala bat egotea egoismoaren, kooperazioaren nahiz altruismoaren portaeren artean.

XXI. menderako pertsonen profilak hezkuntza eta jendarte eraldaketaren testuinguruan

Azurmendik egiten dituen ekarpen eta planteamendu horiei gehitu behar zaie, batetik, badaudela mundua aurrekaririk gabeko eraldaketara eta erabateko ziurgabetasun goerara daramaten ezaugarriak. Horien artean aipatzen dira, esate baterako:

globalizazioa, digitalizazioa, automatizazioa, kolapso ekologikoa, klima aldaketa, indibidualizazioa, migrazioak, balioen krisia... Krisiaren askotariko izaera horiek eragina duten eremuak dira, besteak beste: pertsonak, erakundeak eta komunitateak. Kontestu horretan azaldu zaigu jendarte modernoan konpromiso soziala kudeatzen ez dakien eta ezkututzen den gizaki bakartia: lankidetzarako gogoia galdu duena eta ni ez-kooperatzailean bihurtu dena. Era berean, ezaugarri horiek guztiek intzidentzia izan dute pertsonen eta taldeen parte hartzeko moduetan, herritarren eta erakundeen arteko harreman moldeetan, edota jokabide sozialak zehazten dituzten balioetan. Egoera horien aterabideak dira, ordea, desberdinen arteko kooperazioa eskatzen duten jendarte-erronka kolektiboak. Horien artean aipagarriak dira, adibidez: trantsizio sozioekologikoa, zahartzaroa duina eta zaintza, feminismoa, elikadura jasangarriak, enpresa kulturen birformulazioa, inklusioa... Horregatik da garrantzitsua giza jokabide kooperatiboetan (eta prosozialetan) sakontzeko ikerketak egitea egungo jendarte erronkak erantzuteko bidean.

Bestetik, ezaugarri horiek guztiek eragina izan dute pertsonen bizitzarako behar dituzten profiletan eta hezkuntza erakundeetan. Gizaldi honen hasierak ekarri du profil pertsonal eta profesional berriak eskuratzeko beharra, bizitzarako garrantzitsuak diren kompetentzien eta gaitasunen bidez adierazten direnak. Zehaztu (eta batu) egin dira XXI. menderako pertsonen bizitzarako, lanerako eta ikasteko beharrezko profilak. Nazioartean adostasuna dago egungo munduaren erronkei erantzuteko pertsonen behar dituzten kompetentziekin; horien artean garrantzia hartu du kooperazioaren aldagaiak, besteak beste, hurrengo hauekin batera: arazoen ebazpena, pentsamendu kritikoa, komunikazioa eta sormena.

Azkenik, hezkuntzak eraldaketa sozialaren norabidean eragin dezan, kontuan hartzekoa da hainbat ahotsek diotela pertsona mota 'berriak', askotarikoak, direla beharrezkoak: *Homo economicus*-aren balio eta jarrera desberdinak dituztenak eta pertsona guztien ongizatea eta naturaren mugak kontuan izango dituztenak. Premiazkoak direla, era berean, erakunde, gobernantza eta politika publiko 'berriak', bestelakoak: komunak, edo prokomun kolaboratiboak direnak. Elkarrekin egindakoak eta guztiontzat direnak, unibertsalak. Bide horretan, lagungarri moduan kokatzen dira eredu kooperatiboak: ereduok, elkarlanean, orienta dezaketelako eraldaketa soziala, ekonomikoa, ekologikoa eta kulturala. Kooperatibismoak ere are gehiago bultzatu dezake baldin eta elkarrekin denontzat egitearen klabeetan ulertzen eta garatzen bada; hau da, elkarlan eskuzabala gauzatzen bada (kooperatibismo inklusiboa). Eta horrek eskatzen du era indibidual zein kolektiboan kontziente izatea, azken finean, garena (er)aldatzeko, elkarrekin guztiontzat eraikitzen eta garatzen duguna garelara.

Aipatutako hiru ideia horiei jarraiki, gaurko egunean, esan ohi da XIX. mendeko ikasgelatan XX. mendeko irakasleok XXI. mendeko pertsonak hezten dihardugula; hori dela eta, beharrezkoa duela hezkuntzak eraldaketa integrala gauzatzea. Giro horretan, gero eta gehiago dira eraldaketa proiektuak garatzen ari diren Euskal Herriko hezkuntza erakundeak. Eraldaketa horien zentroan, ongizate eta aurrerapen sozialaren bidean, kokatzen da pertsonaren garapen integrala. Proiektu eraldatzaile horiek hezkuntza erakundeetan ekarri dituzte (er)aldaketak eta berrikuntzak: pedagogikoak, metodologikoak, arkitektonikoak, antolaketa alorrekoak eta pertsonalak. Prozesuotan,

hezkuntzaren misioa birdefinitzen ari dira XXI. mendeko ikasle profilen eskarrietara egokituta eta erakundeen hezkuntza-misioarekin harremanetan ezaugarrituta. Garrantzitsua baita pertsonen, erakundeen eta komunitateen eraldaketa prozesuak lantzerakoan eta aztertzerakoan kontuan hartzea kulturaren eta nortasunaren arteko harremana. Kulturak lagundu behar du erakundeen (hezkuntza) misioaren zein pertsonen profilen bilakaera uztartzen. Alegia, eraldaketa sozialerako norabide horretan, eraikitzen diren eraldaketak (pedagogikoak, arkitektonikoak, antolaketa alorrekoak, pertsonalak...) misioaren eta pertsonen garapenerako ikuspegiarekin eta elkarrekintzarekin landu beharko lirateke.

Baina, nola egin daiteke hezkuntza-eraldaketa esperientzia horien ebaluazioa? Nola jakin daiteke hezkuntza eskaintzek ikasleengan duten eragina? Galdera horiei erantzuna eman nahian, irteera profilen eta kooperazioaren aldagaiak aztertzen hasita identifikatzen dira galdera berriak ekosistema kooperatibistako hezkuntza erakundeetan, eta, ondoren, izaera desberdinetako hezkuntza erakunde batzuekin kontrastatzen da atzemandako beharra. Horrela, iker-galdera nagusia formulatzen da: nola neurtu edo ebaluatu daiteke Pertsona Kooperatiboaren profila ikasle gazteengan? Eta horretarako beste bi iker-galdera: zer da Pertsona Kooperatiboa? Zein dira Pertsona Kooperatiboa ezaugarritzen duten aldagai nagusiak berori garatu eta ebaluatu ahal izateko?

Pertsona eta kooperazioa

Azurmendik, gizabere kooperatiboaren gaia jorratzen duenean, ohartarazten du ekonomia mota desberdinen teoriak zein horiek aztertzen dituzten ikerlariak ekonomia politikotik aztertzen dutela kooperazioaren arloa. Hori dela eta, ekonomia mailan proposatzen dituzte horiek gaiarekiko planteamenduak eta soluzioak. Hurrengo adierazten du Azurmendik gaiari buruz *Gizabere kooperatiboaz* liburuaren 8. orrialdean:

Badago, ordea, arazo antropologiko-filosofiko aurretiazko bat gizakiaren berezko izaerari buruz, kooperazioaren posibilitateari eta zentzuari zuzenean erasaten diona. Zer da berez gizakia: Hobbesen otsoa otso artean, elkarrekin beti lehian eta borrokan, eta, beraz, naturala kapitalismoa da?, ala Rousseauren gizakume bihozbera lagunkoia? Naturala ala antinaturala da kooperatibismoa? Euren ikerketa zientifikoen itua ez dute zuzenean hori izaten, baina azken urteotan eboluzioaz eta gizakiaren bilakaeraz diharduten biologo eta etologoek galdera horretara ekartzen gaituzte behin eta berriro.

Norabide horretan, litekeena da muturreko portaera berekoiaren eta altruistaren artean eskala gradual bat egotea; izan ere, kooperazioak ez du zertan instintu berekoi hutsa, edo hezkuntzaren ondorio altruistaren emaitza izan behar, eduki dezake bietatik apur bat. Posible delako kontraesanik ez egotea egoismoaren eta altruismoaren artean edota indibidualismoaren edo kolektibismoaren artean. Izan ere, organismo baten errealizazio indibidualak barnean darama parte hartzen duen taldearen integrazioa. Edo, egiazki, animalia sozial guztiek lortu behar dute pertsonaren eta komunitatearen arteko oreka. Gizakiak, indar kontrajarrien produktua izanik, beharra duelako interes

pertsonalak zaintzekoa eta elkarrekin jardutekoa; bizirik irauten laguntzen duten elkar erlazionatutako bi faktore baitira hauek. Kontraesanak direla-eta, pertsona berak jokaera desberdinak adierazi ditzake egoera desberdinetan. Horrela, razionaltasuna kalkulatzeko ohitura dugun arren, gure portaera instintuaren eta adimenaren arteko konbinazio bat da.

Planteamendu horrek, halabeharrez, galdera batzuk pausatzen ditu. Zergatik eta zertarako kooperatu behar dugu pertsonok? Zer dio eboluzioak kooperazioari buruz? Zerk laguntzen du pertsonok kooperatu dezagun? Edota zein aldagai garatu/eduki/erabili behar ditugu pertsonok kooperatzeko?

Gizakiaren eboluzioari eta historiari dagokionean, kooperazioa beti izan da faktore positiboa eta naturala, solidaritatean eta kooperazioan oinarritutako elkarlaguntzak eragina duelako pertsonaren eta komunitatearen aurrerapenean eta ongizatean. Gizakiek aurrera egin dute kooperazioaren bidez, garrantzitsuak izan dira biziraupen horretan komunitateko kideen arteko elkarrekintzak. Gizaki abilenak ingurunera hoberen egokitutakoak izan dira, ez indibidualki indartsuenak. Kontzientzia morala gizakiaren erreferentziazko osagarria da, eta elkarlaguntza izan da eboluzio etikoa garatu duena, ez existentziaren aldeko borroka.

Biologian, esate baterako, bizitza bera ulertzeko funtsezko kontzeptua izan da kooperazioa. Eboluzioaren oinarritzko printzipioak mutazioa eta hautespen naturala dira, baina kooperazioarekin eraikitzen da eboluzioa. Bizitzak eta ingurune ekologiak ekarri zuten hizkuntzaren beharra, eta horrek konplexuagoak egin zituen gizakien arteko elkarrekintzak. Hala ere, harremanak konplexuagoak egiten dituen arren, kooperazioa errazten du hizkuntzak. Gizabanakoak bakarrik lortuko lituzkeen emaitzak baino hobeak lortzen ditu kooperazioaren bidez; horrek bultzatzen du batzuen zein besteen progresua nahiz komunitatearen ehun sozialaren kohesioa. Gizakiaren elkarrekintzak ahalbidetzen du kooperazioak eboluzionatzea; eta, era berean, altruismoak, zeinak ahalbidetzen duen gizarte bezala eboluzionatzea.

Soziobiologiaren ikuspegitik, bizitzaren funtsa eta kooperazioaren arrazoia ugalketa geneen egoismoan oinarritzen dela defendatzen dutenen aurrean, bada gizakiak kooperatiboak, eusozialak edo prosozialak garena defendatzen duenik. Existentziaren aldeko borroka gainditzen dutenak taldeak direlako, ez gizabanakoak. Beraz, talde hautespena da eboluzioaren oinarria; hots, talde osoarena da eboluzioa, ez soilik norbanakoarena edo familiarena: kulturaren eboluzioan eragiten du biologia genetikoak, eta biologia genetikoaren eboluzioan kulturak. Ikaskuntza sozialera aplikatutako zientzia kognitiboen begiradatik, aldaketa biologikoak eragiten ditu transmisio sozial eta kultural horrek gizakiengan eboluzio kultural metagarria eraginez eta trinkete efektua oinarritzat hartuz. Horrela, kognizio sozialerako forma berezi bat eraikitzen da, ondare biologiko eta kultural bikoitza. Azken finean, izaera berdinkideagoa eta humanoagoa duen sistema sozial batean bizitzea aurrekaria izan daiteke giza gaitasun kooperatiboen eboluziorako. Kooperazioa beharrezkoa baita guztien ongizaterako.

Gizakiok, animaliek ez bezala, gaitasuna dugu beste pertsonen egoera mentalean kokatzeko. Horrenbestez, gizakia izaki soziala da: ahalmena du talde kulturaletan elkarlanean jarduteko eta pentsatzeko. Hortik dator harreman sozialen garrantzia.

Adimen kultural mota berezi bat garatzen dugu kooperazioan aritzeko, komunikatzeko eta sozialki ikasteko, intentzio partekatuak eraikiz. Gaitasun horiek direla-eta, gizakiok ahalmena daukagu taldeko pentsamendu kooperatiboan parte hartzeko. Kooperazioaren arrakastan eragina dute gaitasun desberdinek: komunikazioak, harremanak, gaitasunen garapenak eta motibazioak, eta alderdi emozionalek; batez ere, taldeen mentalitatea eta asmo mental kolektiboak sortu eta garatzerakoan. Kooperazioak exijitzen du praktikan besteekin elkarrekintzan jardutea, eta gaitasun sozialak eta kognitiboak edukitzea besteekin konektatzeko; eta horretarako beharrezkoak dira entzute aktiboa eta enpatia.

Neurozientziaren perspektiba batetik ere, gizakia espezie guztiz soziala da, giza naturaltasun sozialak egiten gaituelako gizaki kontziente. Izan ere, lotura dute beraien artean emozioak eta arrazoimenak, ekintzak eta pertzepzioak eta beste pertsonen eta gure buruaren arteko irudikapenak. Garuneko erregioetan oinarritzen dira giza portaera sozialaren arazoiketak, borondatezko orientazioak, auto erregulaziorako erantzunak eta ekintza emozionalak; eta horrela integratzen eta erlazionatzen dira gizakiaren pentsamenduaren helburuak dituzten portaerarekin. Hala, giza portaera sozialak esentzialak dira harremanak mantentzeko; eskatzen dute beste pertsonen adimen batzuk ulertzea eta pentsatzea, enpatia edukitzea (ispilu-neuronak).

Azkenik, Pertsona Kooperatiboaren definiziora eta ezaugarritzera hurbiltzen diren ereduak aurkitu dira. *Homo cooperativus*-a da adibideetako bat. Ikuspuntu sozioekonomikoaren begiradatik, kapitalismotik eta *Homo economicus*-etik harago, Frantziako eta Ingalaterrako korranteek *Homo cooperativus*-a kokatzen dute ekonomia sozial solidarioaren muinean. *Homo cooperativus*-a pertsona mota jakin bat da beste pertsonen interes onenak kontuan hartzen dituen eta etorkizuna pentsatzeko gaitasuna duena. Altruista mota moduko bat da, zentratzen dena norberaren eta beste pertsonen helburuak erantzuten. Ezaugarri nagusi bezala kokatzen dira epe luzerako ekintzara bideratutako kooperaziorako gaitasuna eta enpatia. Beste etsenplu bat da Georges Lasserrena. Harentzat, *Homo cooperativus*-a izango litzateke espiritu kooperatiboak bultzatutakoa: zintzoa, errespetatzen dituen hurkoaren nortasuna eta guztien berdintasuna eta duintasuna; justiziarekin eta elkartasunarekin bat egiten duena, eta ardura orokorraren eta pertsonalaren zentzua bere gain hartzen duena. Edo, azkenik, aipatu daiteke Azurmendik berak gauzatutako lana: *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta*. Bertan azpimarratzen da, Arizmendiarietak pertsonan eta komunitatean errotutako teorian oinarrituta, kontzientzian oinarritutako autoahalduntzea dela gakoa pertsonen eta komunitateen autoerrealizaziorako. Arizmendiarietaren pentsamenduan, pertsona honela ezaugarritzen da: duina, askea, heldua, sortzailea, idealista-praktikoa eta komunitarioa. Arduratsua: parte-hartzailea eta printzipio moralekin. Bere buruaren eraikitzailea: eraldatzailea, langilea eta autoerrealizatutakoa. Utopikoa, garapen indibidual eta komunitarioetarako nahitaezkoa: ekintzailea, aktiboa eta idealista-praktikoa. Norbanakotik harago, giza duintasuna garatzen duena komunitatean kooperazioaren eta elkartasunaren bidez, norberaren eta besteen eskubideekiko errespetuaren kontzientzia adierazita.

Pertsona Kooperatiboaren definizioaren eta ezaugarritzearen eraikuntza

Datu-base garrantzitsuenetan egindako azterketan ez da aurkitu Pertsona Kooperatiboa definitzen duen frogatutako teoriarik, ezta berori neurtzen duen ebaluazio tresnarik ere. Hori dela eta, Oinarritutako Teoria (*Grounded Theory*) metodoaren bidez eraiki da Pertsona Kooperatiboaren definizioa eta ezaugarritzea, ikastetxetan, unibertsitate fakultatetan eta enpresa kooperatibatan egindako ikerketaren bidez. Urrats horrek posible egin du definizioa eta ezaugarritzea eraikitzea, ondoren, berori neurtzeko aldagai nagusiak aukeratu eta profilararen neurketarako eskalaren diseinua eta balidazioa gauzatu ahal izateko.

Pertsona Kooperatiboa definitzeko lortutako emaitzek erakusten dute, batetik, Pertsona Kooperatiboaren profilararen kategoria zentrala osatzen dutela gizakia eta jendartea kontuan hartzen dituzten balio eta jarrera indibidualek, kooperatiboek eta komunitarioek. Bestetik, sortutako gainerako kategoriak biltzen dituzten oinarritzko hiru prozesu sozial definitzen dira: burujabea izatea, elkarkidetzan jardutea eta ekintzailtza soziala praktikitzea. Hala, beraien artean elkarrekintzan dauden balioak eta jarrerak nahiz oinarritzko hiru prozesu sozialak beharrezkotzat jotzen dira elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatu eta egiteko. Elkartasuna pentsamenduaren eta ekintzaren ikuspegitik ulertzen da, eta eraginkorra izan behar da justizia sozialaren, aukera-berdintasunaren eta pertsona guztien duintasunaren norabidean; berrikuntza, berriz, autoeraketa pertsonalerako, kolektiborako (pertsonen artekoa) eta komunitariorako (pertsonen eta taldeen artekoa) etengabeko sormen gisa definitzen da; hots, pertsonen eta taldeen arteko (erakundeak, instituzioak, elkarteak...) interkooperaziorako beharrezkoa. Hurrengoa da eraikitako Pertsona Kooperatiboaren definizioa:

Pertsona Kooperatiboa da gizakia eta jendartea kontuan hartzen dituzten balio eta jarrera indibidualak, kooperatiboak eta komunitarioak dituen; burujabea, elkarkidetzan diharduena eta ekintzaila soziala: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena.

Modu horretan, balio eta jarrera indibidual eta komunitarioak dira Pertsona Kooperatiboan zentralitatea duten ezaugarriak, haren pentsamendua eta portaera gidatzen dutenak. Balio eta jarrera horien erabileran dago gakoa, esate baterako, banakako eta taldeko erabakiak hartzean, taldean edota taldeen artean lan egitean, harremanak eraikitzean, aldaketak bideratzean edota misio eta ikuspegi soziokomunitarioa eraikitzean erronka indibidualak, erakundeak eta komunitarioak erantzuteko.

Jarraian aurkezten dira Pertsona Kooperatiboa ezaugarritzen duten identifikatutako balioak eta jarrerak: *eskuzabaltasuna, elkartasuna, lankidetzak, partaidetza, justizia soziala, aukera berdintasuna, duintasuna, demokrazia, ekitate, gardentasuna, errespetua, leialtasuna, umiltasuna, berdinkidetzak, askatasuna, ongizatea, konfiantza, erantzukizun soziala, berrikuntza soziala, ekintzailtza soziala, kooperazioa, konpromiso soziala...*

Hiru ardatz nagusik ezaugarritzen dute Pertsona Kooperatiboaren profila: pertsonalak, erlazionalak eta soziokomunitarioak.

Lehenengo ardatzak, dimentsio pertsonalak, pertsona nolakoa den adierazten du, haren alderdi (konpetentziak, gaitasunak, balioak eta jarrerak) intrapertsonalak. Burujabea izateak adierazten du badakiela norbera izaten eta horretarako bere burua autoerrealizatzen (horretarako ikasten). Lehenengo kategoria horrek hiru ezaugarri ditu: autonomia, kontzientea eta ekintzailea.

Bigarren ardatza, berriz, erlazionala da, pertsonaren alderdi interpertsonalak adierazten ditu. Horrela, elkarkidetzan jardutearen ardatz horrek adierazten du pertsona nola erlazionatzen den, elkarreragin positiboa edukiz, besteekin lankidetzan aritzeko orduan. Kategoria horrek hiru ezaugarri ditu: talde-lana, talde-kudeaketa eta beste pertsonak kontuan hartzea.

Hirugarren ardatzak, azkenik, orientazio soziokomunitarioa, pertsonaren alderdi transpertsonala azpimarratzen du. Hala, komunitatean zergatik eta zertarako izan eta egin azaltzen du hirugarren ardatzak; hau da, pertsonak komunitatean eta komunitatearekin jokatzeko duen rola. Kategoria horrek beste hiru maila barnebiltzen ditu: justizia soziala, aukera-berdintasuna eta pertsonen duintasuna; eraldaketa soziala; eta erronka indibidualak eta komunitarioak.

KOOPHEZI-i: Pertsona Kooperatiboaren profilaren neurketa ikasle gazteengan

Pertsona Kooperatiboaren definizioa eta ezaugarritzea kontuan hartuta eraiki da profilaren neurketarako eskala. Errebisio berri batekin indartu eta sakondu egiten da Pertsona Kooperatiboak garatu behar dituen konpetentzia, gaitasun, balio eta jarrerak aztertzen dituzten teorietan. Esate baterako, kontuan hartzen dira Schwartz oinarriko giza balioen teoria, jarreraren teoria, gaitasunen teoria edota gizarte balioen orientazioaren teoria (*Social Value Orientation*).

Teoria horiek eta test eraikuntzarako urratsak kontuan hartuta aukeratu dira *a priori* Pertsona Kooperatiboaren profilaren aldeko eta aurkakotzat jo diren aldagaiak. Horrela, test eraikuntzarako balidazio prozesuak eskatzen dituen fidagarritasuna eta baliozkotasuna aztertzeko analisiak burututa, hiru dimentsio orokor ditu eraikitako azken eskalak: Indibidualismoa, Pertsona Kooperatiboa eta Kolektibismoa. KOOPHEZI-i galdera-sortak hamazazpi aldagai neurtzen ditu 65 itemen bidez. Indibidualismoa (noranzko negatiboan, lau aldagai) neurtzen da nartzisismoarekin, berekotasunarekin, idiozentrismoarekin eta gizakiaren ikuspegi negatiboarekin; Pertsona Kooperatiboa (noranzko positiboan, hamar aldagai), aldiz, autoefikaziarekin, moral barneratuarekin, beharizan kognitiboarekin, helburuen interdependentziarekin, enpatia kognitiboarekin, komunikazio asertiboarekin, justizia sozialarekin, onginahiarekin, ekintzailetza sozialarekin eta gizakiaren ikuspegi positiboarekin; Kolektibismoa (noranzko negatiboan, hiru aldagai), azkenik, gatazkak ekiditearekin, identitate sozialarekin eta talde eraginarekin.

Aipatutako tresna fidagarri hori baliagarria da 16 eta 22 urte bitarteko gazteen Pertsona Kooperatiboaren profila ikasleen autopertzepzioetik neurtzeko; eta erabilgarria da Batxilergorako, Lanbide Heziketarako eta unibertsitateko graduatarako.

Ondorioak

Ondorioz, Azurmendik *El hombre cooperativo. Pensamiento de Arizmendiarieta* eta *Gizabere kooperatiboaz* liburuetan egindako ekarpenei eta galderei keinu bat eginez, esan daiteke lan horietan egiten diren planteamenduen gogoetek eta pentsamendu-ildoek gaurkotasan osoa erakusten dutela egungo jendarte testuinguruan pertsona, erakunde eta komunitate eraldatzaileak sortzeko orduan. Beraz, garatzen ari den ikerketa lagungarria izan da Pertsona Kooperatiboa gaur egungo hezkuntza eta jendarte eraldaketa klabeetan kokatzeko. Horrela, kontuan hartzekoa izan daiteke XXI. mendeko testuinguruan Arizmendiarietaren pentsamenduaren berrirakurketaren hurbilpen bat egiteko.

Bukatzeko, KOOPHEZI-i tresnak hiru faktore orokor bereizten ditu giza portaeren eskalan: Indibidualismoa, Pertsona Kooperatiboa eta Kolektibismoa. Beraz, ikerketaren garapenak lagundu dezake pertsonen portaera joeratan atzemandako aldagai desberdinen arteko korrelazioak aztertzen. Urrats honek ahalbidetu du Pertsona Kooperatiboaren profilaren hezkuntza-garapenerako eta ebaluaziorako landu beharreko aldagaiak argitzen. Halaber, aukera ematen du Pertsona Kooperatiboaren aldagai bakoitza garatzen laguntzen duten ikaste-testuinguruak, esperientziak eta esku-hartzeak diseinatu, inplementatu eta horien inpaktuak neurtzeko, unibertsitateko ikerlarien, hezkuntza zentroetako irakasleen zein komunitateko partaideen elkarlanarekin.

Oharrak

1. Eskerrak eman nahi dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiari ikerketa-ildo hau euskaraz garatzeko eman digun laguntzarengatik. Eskerrak ere Gizabidea Fundazioari eta ULMA Fundazioari proiektu honi emandako laguntzarengatik eta babesarengatik. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiogu ikerketa hau posible egin duten norbanako eta erakunde guztiei.

JAKIN
Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus